



### **Oharra:**

Gaur oso epaiketa berezia egin da Bilbon, EAEko Auzitegi Nagusian, forman eta fondoan. Fondoan epaitzen dena sindikatuok dugun hainbat informazio jasotzeko eskubidea da, eta epaia oso garrantzitsua izango da alde honetatik. Nolabait esateko, 37 informazio mota ezberdin jasotzeko eskubidea aldarrikatu du Langile Batzordeak. Kontratazioen datuak, azpikontraten eta ekoiztetxeen inguruko informazioa, datu ekonomikoak... esan bezala, langileon aldeko epaia irtenez gero tresna garrantzitsua edukiko dugu ETBn prekaritateari eta iluntasunari aurre egiteko. Kontran ateraz gero, txiringito publikoa nahieran kudeatzea errazago izango du Sabin Etxeak.

Halere gaur behintzat garrantzia handiagoa hartu du formak. Izan ere EITBko zuzendaritzak erabaki onartezina hartu du, EAEko Auzitegiaren eskuduntzak baztertu eta hemendik aurrera lan gatazka kolektibo guztiak Madrilgo Entzutegi Nagusiak epaitzearen aldeko apustua egin baitu. Aitzakia Madrilen eta Barzelonan dauden korrespontsalietan oinarritu dute, hots, lan zentruak EAetik kanpo izateagatik, herrialde horretan ordezkariarik ez duen sindikatuak ezin duela gatazka kolektiborik aurkeztu dio.

Orain ez gara xehetasunetan sartuko eta epaileek ebatziko dute gaia. Salatu nahi duguna da gaur egun, lan hitzarmenen estatalizazioaren arriskuaren testuinguruan, Eusko Jaurlaritzaren ETB jokatzeko ari den papera. Hasteko, programak grabatzeko azpikontratatzeko duen Aldi Baterako Lan Enpresari kontratua etetea erabaki berri du, adostu berri den ikusentzunezko

hitzarmen markoa de facto bertan behera botatzeko helburuz. Gaurkoan ETBk bere lan hitzarmenaren zaintza euskal sindikatuen eskuetatik urrundu nahi du. Langile Batzorde honek Administrazio Kontseiluko kideei gai hau formalki lantzea eta norberaren jarrera adieraztea ekatzen die.